



14

Hiruhilabetekaria
apirila-maiatza-ekaina

2011

j
k
uz

kanpo



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ARABAKO FORU ALDUNDIA



Gizarte Ongizaterako
Foru Erakunde
Instituto Foral
De Bienestar Social

DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

aurkibidea

Zk. 14

- 1 Artikulua
“Jokoaren erabilera eta gehiegizko erabilera”
- 2 Elkarrizketa
“Eguzki Urteaga”
- 3 Hiritarren erantzuna
- 4 Hiriko eta probintziako baliabideak
“Ausazko Jokoen eta IKT-en arriskuei prebentziorako programa”
- 5 Balorazioak
“Hiruhileko onena eta txarrena”
- 6 Gomendioak
“Gomendatutako liburua eta DVDa”
- 7 Iritziak
“Irakidokizuna edota iritzien postontzia”

Argitaratzailea: ASAJER. Erreabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarte

Laguntzaileak: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (Arabako Foru Aldundia), Osasun eta Kontsumo Saila (Vitoria-Gasteizko Udala) eta Euskadiko Kutxa

Argazkiak: Asajer

Diseinua: ERDU

maketazioa: KOMUNIKA DIGITAL 2.0

Itzulpenak: Higan Itzulpen Zerbitzuak

Inprimatzailea: Vicuña Grafikoak

Lege-Gordailua: VI - 356 / 07

Jokoaren erabilera eta gehiegizko erabilera

Nork ez du inoiz loteria boletu bat erosi, nork ez ditu edari baten bueltak makina txanponjalera bota, nork ez ditu txanpon batzuk jokatu karta jokoan eta nork ez du apustu txikiren bat egin inoiz?

Jokoaren partaide izateko eta jokatzeko aukera egunero sortzen da baina... NOLA PARTE HARTZEN DUGUN BAKOITZAK JOKOAN?

Modu ezberdinetan egin dezakegu:

1. Tarteka joka dezakegu ondo pasatzeko, denbora pasatzeko, besteekin erlazionatzeko...gure jarduera erabat kontrolatuz eta nahi dugunean alboratzeko gaitasuna izanez, irabazi edo galdu. Jokoa era osasuntsu batean erabiltzen ariko ginateke eta JOKALARI SOZIALTZAT jo genezake gure burua.

2. Sarritan edo egunero joka dezakegu eta ohiko diru gastu bilakatu daiteke, noizean behin arazoren bat ekariko digularik. Gehiegi jokatzen ariko ginateke e ta gure burua ARAZOA DUEN JOKALARITZAT joko genuke.

3. Maiztasun handiz joka genezake e ta denbora eta diru asko sartu genezake horretan, beti ahal duguna baino apustu gehiago eginez. Jokoak denbora pasa izateari uzten dio eta izaera soziala galtzen du, behar bilakatuz eta alde batera uzteko arazoak izan ditzakegu. MENDEKOTASUNA DUEN JOKALARI lez defini genezake gure burua.

Eguzki Urteaga

1.- Zein funtzio ditu jokoak gizartean?

Komeni da haurrentzako eta helduentzako jokoan funtzioak bereiztea. Lehen kasuan, jokoak ezinbestekoa da hauraren garapen pertsonalari begira, izan ere, kanpoko errealitateari dagozkion betebeharrak eta munizipalitateetatik aparte mantentzea ahalbidetzen die haurrei. Horez gain, helduen mundua beha dezakete haien presentziarik gabe, berdinekin elkarrekin ari daitezke eta modu autonomoan jardun dezakete. Helduentzako jokoak, funtsean, gozatzeko, sozializatzeko, lehiatzeko eta haremanak egonkortzeko aukera ematen du.

2. - Zein neurritan esan daiteke ludopatiaren estigmatizazioa ematen dela?

Ludopatiak gaizki ikusitako gaixotasuntzat hartzen direnez, estereotipoen edo pertzepziozko eskemen baitan jausten dira eta haien inguruan gizarte-estigmatik agertzen dira. Arazo horiei esleitzen zaien gizarte-irudi kaskara gutxiespen-tonuz apaintzen da eta hanera txarra izaten dute gizartean. Horek gaixotasun horiek ezkutatu eta ikusezina izatea eragiten du eta, horez gain, norbanakoek ukapen eta isolamendu sentimentua izaten dute. Mendekotasuna duten jokalariek onartzen dute sarritan behatuak eta apartatuak sentitzen direla, salatzaileak miran kokatzen dituztela, baztertuak eta markatuak sentitzen dira. Hori da bere bulkadei eutsi ezin dionaren perbertsiozko eta moralik ezaren zigilua eta, horrenbestez, heritar anormal izatera pasatzen dira. Ludopatei esleitzen zaien irudia "biziotsu zantzararena" da.

3.- Ikerketa soziologikoen arabera, bada joko patologikoa eragiten duen faktorerik?

Ikerketa batzuetan (orokorki Estatu Batuetan egindakoak) mendekotasuna pairatzen duen jokalariairekin portaerarekin zerikusia duten aldaera sozial eta demografikoak duten eragina asmatzeko ahalegina egin da. Kontsultatutako lan ezberdinetan ikergai izan diren ohiko aldaerak adinarekin, generoarekin, egoerarekin edo gizarte-klasearekin, egoera zibilarekin, lan-motarekin, habitatarekin edota erlijioarekin izan dute zerikusia.

- Denbora luzez pentsatu izan da jokalaria patologikoaren prototipoa 40-50 urte bitarteko gizonarena dela, izan ere, profil hori ematen zuen informazio-iturria tratamendu bila gerturatzek ziren heritarrei egindako ikerketetan oinarritzen zen. Baina jokoak heritargo orokorrean duen eragina ikusteko epidemia-ikerketak egiten direnean, ordea, kontrakoa ikusten da, hots, nolabaiteko mendekotasunez jokatzek dutenak gehienbat pertsona gazteagoak direla, nahiz eta ia ez duten halako zentro edo elkarteetara jotzen, tratatzeko laguntza bila.

- Mendekotasuna duten jokalarien artean, gizonen portzentajea handiagoa da emakumeena baino. Arazoak dituzten jokalariai sekula bereizten baditugu, emakume bakoitzeko bi gizon aurkitzen ditugu. Aldi berean, jolas-makinekin jokatzeko ohitura dutenen artean gizonak nabarmentzen badira ere, ONCEko kupoia erosten duten emakumeen portzentajea handiagoa da, eta berdin aipatu jokoari eguneroko loterian jokatzeko usadioa gaineratzen baditugu.

- Estatu Batuetako Gallup Institutuak egindako ikerketa baten arabera, apustu-jokoan gehiago aritzen da elite sozioekonomikoa klase hemioia baino. Veblen araberak, jokoak iraganeko aztama bat da, klase nagiak ekarria bizitza ikusteko bere ikuspegi bereziari jarraiki. Baina, jokoak demokratizatzearen ondorioz, eremta handiagoari esker, askoz ere anitzagoa da mendekotasuna eragiten duten jokoek eragindako kategoria sozialen sarea.



Eguzki Urteaga

Soziologia irakaslea
Euskal Herriko
Unibertsitatean eta IKER
Ikerketa Zentroko
(Frantziako CNRS
delakoarekin
kideratutako laborategia)
ikertzailea

- Egingako ikerketa gehienetan ikusi ahal izan denez, mendekotasuna duten jokalarien heziketa-maila heritarren batez bestekoarekin bat dator. Estatu Batuetan, aldez, hainbat ikerketetan frogatu ahal izan denez, ludopatia ohikoa da hamar urte baino gehiago eskolatutako jokalarien artean, eta horien erdiek ikasketa ertainak edo goi-ikasketak dituzte.

- Orokorki, mendekotasuna eragiten duten jokoak bakarrak bizi diren, ezkongabeak diren, berezita dauden edota bananduta dauden pertsonen artean agertzen da maizen. Hala, Sommerssek egindako ikerketak adierazten duenez, populazioan orokorrean ezkongabeak soilik %23,6 diren arren, hain zuzen, ezkongabe horiek dira mendekotasun handi samarra duten jokalarien %38,9a. Halaber, bananduta dauden pertsonak populazio osoaren %9,3 baino ez badira ere, bananduta dauden pertsona horiek mendekotasuna duten jokalarien %16,6a egiten dute.

- Estatu Batuetan egindako zenbait ikerketatan nabarmentzen denez, jokalarai patologiko judutar eta katolikoak gehiago dira protestanteak edo erlijio bati jarraitzen ez dietela adierazten dutenak baino. Erlijio katolikoak historikoki jokia gehiago baimendu du eta eliza protestanteek, aldez, arbuia egin dute. Halako kontuek azal dezakete alde hori.

4.-Ludopatia gizartearen ikusezina dela uste duzu?

Ludopatia gizartearen diren gaixotasun ikusezinen artean sartu behar da. Egiturazko ezaugarrien eruz (dirua bezain arunta den elementu bat erabiltzen da; jendez beteta egoten den tokietan jokatzeko da, esate baterako, tabernetan; jokia entretenimendu gisa onartuta dago; mendekotasuna eta eguneroko bizitza bereizteko eratzasuna dago) ezkutuan eta gordeka dauden gaixotasunak dira eta, ez dago haiek identifikatzeko mekanismo argi eta zehatzik. Horregatik, ludopatiak nekez hautematen dira edo, bestelako mendekotasun zenbait baino zailagoa da hautematen, drogak baino zailagoa, kasu. Ludopatiak sozialki alde batera uzten dira edo interes baxua ematen zaie, eguneroko gauza eta ermutinekin lotzen dira, bat-batean amatarik ematen ez dutelarik. Horregatik ez da zantzu deigarrik edo portaera nabarmenik zertan agertu, eta jokalarai asko dago arazoa urte askoan pairatzen duena inor konturatu gabe.

5.-Zer egin beharko luke administrazio publikoak ludopatiaren aurrean?

Lehenik eta behin, administrazio publikoak jokoarekiko eta harekin lotutako zeinu patologikoei duen jarrera nahasgarria alde batera utzi behar du. Alde batetik, jokia eta irabazten dutenak eta, modu horretan, aberastu egiten direnak balioetsi egiten dira. Besta alde batetik, okertzat jotzen diren portaerak estigmatizatu egiten dira gizarte-arauekiko haustura dakartelako eta gizarte-ordena kolokan jartzea dakartelako. Bestela esanda, alde batetik, jokoak merkaturatu eta sustatu egiten dira, Internet bidez jokoaren sektorea liberalizatu egiten da eta, beste alde batetik, joko horietan aritzeak berekin dakartzan ariskuei buruz heritarrek ohartarazteko informazio- eta sensibilizazio-kanpainak egiten dira. Bigarrenik, instituzioen zeregina izan beharko litzateke: 1) osoko programak garatzea, 2) eragindako pertsonen arreta egokia emateko zentro espezializatuak biderkatzea, 3) identifikatzeko neuriak hobetzea, izan ere, identifikazio azkar batek joko patologikoaren arazoa konpontzeko prozesua erraztu egiten du, eta 4) jokoaren sektorea arautzea, batez ere Interneti dagokionez.

erantzuna

- 1 Zure ustez, zer da ludopatia, gaixotasuna, ohitura edo bizioa?
- 2 Ezagutzen duzu jokoarekin arazoak dituen inor?
- 3 Zure inguruko pertsonaren batek ludopatia arazo bat izango balu, nola jokatu zenuke?
- 4 Jakingo zenuke nora jo informazio edo aholku bila halakorik gertatuz gero?

Gizona, 76 urte (Guardia):

1. Hartzen duten bizio bat da eta gero ezin dute utzi.
2. Nire familian inork ez du jokutzen.
3. Ez dakit hori nola konpon daitekeen.
4. Arrastorik ere ez.

Emakumea, 66 urte (Guardia):

1. Ni ziur nago gaixotasun bat denaz.
2. Nire anaia eta adiskide bat.
3. Ni lehen laguntzen saiatzen nintzen, txoratu egin nintzen eta tentsio handia izaten nuen. Orain ihes egiten dut.
4. Gizarte-ekintzara jo nuen baina atea ez zegoen zabalik.

Emakumea, 28 urte (Gasteiz):

1. Nik uste dut gaixotasun bat dela ohitura batekin ez lukete bizitza suntsituko eta.
2. Lagun bat.
3. Guk utzi egin behar duela esan arren, ez digu kasurik egiten.
4. Ez dakit. Interneten begiratuko nuke, zerbait ote dagoen jakiteko.

hiriko eta probintziakoak

Auzasko Jokoen eta IKT-en (bideojokoak, internet, mugikorrak) arriskuak.

ASAJER elkarteak burutzen duen ausazko jolasen eta IKTen (bideo-jokoak, internet, mugikorrak) prebentziorako programa, 4-12 urte bitarteko umeei zuzendua pintatu, marraztu eta jolastuz ongi pasatzeko espazio ludiko batetan parte-hartzera proposatuz.

Gure seme-alabei jolasaren ikuspegi positibo bat helarazteko saiakera bat da.

Edozein delarik ere erabiltzen dugun bitartekoa (baloia, pantaila, jolasak, etab.) jolasak badu funtsezko osagai bat, gure seme-alaben artean sustatu behar duguna: **DIBERTSIOA**. Horrekin batera, jolasa aberasgariagoa da **KONPAINIAN** egiten badugu. Lehenengo **GURASOEKIN** eta gero **LAGUNEKIN**.




*¡Pásalo bien jugando!
Jolasten ondo pasatu!*

Hiruhilabetekaria

ERREABILITAZIOAN DIRÉN ARABAKO
JOKALARIEN ELKARTEA

Hiruhileko onena


Ludopatiaren arloan lan egiten duten Euskal Herriko elkarteak Eusko Jaurlaritzako droga-mendekotasunaren Zuzendari nagusia den Celina Peredarekin elkartu dira, portaerazko menpekotasunak, ludopatia kasu, droga-mendekotasunen legean txertatzeko.



Hiruhileko txarrena

ASAJER elkartera jokoarekin arazoak izateagatik urreratzen diren pertsonak, gehienetan, tratamendu-saioetara bakarrik etortzen direla ikusten dugu oraindik, nahiz eta ezinbestekoa den familiaren laguntza eta babesa mendekotasuna gainditu ahal izateko.

Halaber, garrantzitsua da familiak jakitea ludopatiaren aurkako borroka horretan urratsak ematen ari diren ala ez.



gomendatutako liburua

LUDOPATAREN ESKULIBURUA GAIXO ETA SENIDEENTZAKO GIDA

Blas Bombin Minguez
Fejar (Errehabilitatutako Ausazko Jokalarien
Espainiako Federazioa) federazioko
zuzendari teknikoa.
Argitaletxea: FEJAR

Gaixo, senide eta gizarteak dagoeneko
beste lanabes bat du eskuragarri
mendekotasun ezezagun nagusira
urreratzeko, ludopatiara. Blas Bombin
psikiatraren gida bat da, Errehabilitatutako
Ausazko Jokalarien Espainiako Federazioak
sustatu duena eta Gaztela Mantxako
Fundazio sozio-sanitarioaren lankidetzan
izan duena.



gomendatutako dvd a

NO TENGAS MIEDO

Zuzendaria: Montxo Armendariz
Ekoizpen-urtea: 2010
Iraupena: 1h. 30 min.
Generoa: Drama

Film hau ez dago gomendatua 16 urtez
azpikoentzat.

Interpreteak: Lluís Homar, Michelle Jenner,
Belén Rueda, Cristina Plazas, Javier Pereira...

Silvia txikiaren bizitza oso arrunta. Baina
behinola bere aitak "joko berri bat" hasten
du berarekin. Amak ezikusiarrena egiten duen
bitartean, Silvia aitaren sexu-jazarpenei ihes
egin ezinik hazten da. Heldu isil, etsitu eta
ludopata bilakatu da eta bere lagun onenaren
eta psikologo baten laguntzarekin, hainbeste
urtez jasotako indarkeriak utzitako zantzuak
gainditzen saiatzen da.



Iradozikizuna edota iritzien postontzia

Joan den ekainaren 2an ASAJER elkarteak ludopatiari buruzko informazio-mintegi bat burutu zuen, mendekotasun hori pairatzen duten pertsonen senitartekoei (elkartera urreratzen direnei) zuzendua.

Mintegi horretara soilik eragindunen hiru senitarteko (hiru emakume) bertaratu ziren.

Aurrera begira egingo ditugun jardueretan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, izan ere, oso garrantzitsua zuen ahaideen gaixotasuna ezagutzea, zeri egin behar diozuen aurre jakitea eta familiako kide horiekin nola jokatu behar duzuen ezagutzea.

Zuen zain izango gara hurrengo topaketetan!



*Animatu
eta idatzi!*

